Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko apirilean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko apirilean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.084 izan da, martxoan baino 83 gutxiago eta joan den urteko apirilean baino 43 gutxiago. Egunean bataz bestez 57 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino eskaintza 1 gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko apirilean 135 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 439 Gipuzkoan eta 510 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 47,1 Bizkaiko KAU-etan erregistratu dira, % 40,5 Gipuzkoan eta % 12,4 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 22,9 murriztu dira eskaintzak (40 eskaintza gehiago), Gipuzkoan % 1,8 murriztu dira (8 eskaintza gutxiago) eta Bizkaian eskaintza kopurua % 6,4 murriztu da (35 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 21 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 13,5eko murrizketa; Gipuzkoan eskaintza kopurua 36ean murriztu da, % 7,6ko murrizketa, eta azkenik, Bizkaian 14 eskaintza gehiago izan dira, % 2,8ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 4 eskaintzeko 1 zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (271 eskaintza); industriako langileen lanbide-profilak jarraitzen dio (211 eskaintza). Laguntzarako teknikari, okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek eta zientzia teknikarienak ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 164, 134 eta 126 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak eta lehen sektorekoenak izan dira, 7 kasu bietan.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, gehien hazi diren eskaintzak, bai balore erlatiboetan eta baita balore absolutuetan ere, zerbitzu sektoreko profiletakoak izan dira (24 eskaintza gehiago, % 9,7ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak, teknikarien profilekoak izan dira (42 eskaintza gutxiago, % 25eko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, administrarien eta zerbitzu profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (13 eskaintza gehiago, bi kasuetan), balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profilekoak (%133,3ko hazkundea, 4 eskaintza gehiago). Balore erlatiboetan gehien murriztu diren eskaintzak zuzendarienak izan dira (%36,4ko murrizketa, 4 eskaintza gutxiago); balore absolutuetan, ordea, kualifikatu gabeko profilekoak eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (20 eskaintza gutxiago, % 13ko murrizketa).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 12,3k kontratu mugagabea eskaini dute; % 86,9k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,8k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 133 izan dira, 16 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 10,7ko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 68 gutxiago erregistratu dira: 942 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 6,7koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko apirilean 9 izan dira, aurreko hilean baino 1 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 4 gehiago izan dira (% 3,1eko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 4,7 murriztu dira, 47 eskaintza gutxiago eta merkataritzako kontratuak, aldiz, konstante mantendu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko apirilean erregistratutako lan-eskaintzen 2 heren baino gehiagok (740 eskaintza) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 17,1ek (185) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 2,3ko eta % 0,5eko pisua dute, hurrenez- hurren (25 eta 5 eskaintza guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak murriztu dira, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan ezik; horiek konstante mantendu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore erlatiboetan, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (% 32,4ko murrizketa, 12 eskaintza gutxiago); balore absolutuetan 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (38 eskaintza gutxiago, % 17ko murrizketa).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: hazi diren eskaintza bakarrak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (14 eskaintza gehiago, %1,9ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintza motak 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (40 eskaintza gutxiago, %17,8ko murrizketa).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, 2018ko martxoan eta 2019ko otsailean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 16,6k zehazten du datu hori (1.084 eskaintzetatik 180). 180 eskaintza horietatik, 124 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 56ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 28 gutxiago izan dira martxoarekin alderatuz, hau da, % 18,4 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 7 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 14,3koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 39 gutxiago izan dira (% 23,9ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko 15 eskaintza gutxiago erregistratu da (% 21,1eko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko apirila, 2019ko martxoa eta 2019ko apirila), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2019ko apirilean izan da, % 31,1eko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien aldean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 1,8 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.084 eskaintzetatik 20 soilik. Aurreko hilean 16 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 85ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.084 eskaintzetatik 158k soilik zehaztu dute.



158 eskaintza horietatik, 77k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 48,7k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 35 eskaintza (% 22,2). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 34 eskaintzekin (% 22,1). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 12 eskaintzekin, eta % 7,6ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 158 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago apirilean lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu dela prestakuntza maila martxoan baino (158 eskaintza apirilean; 175 otsailean), eta hauen pisua eskaintza guztien artean apur bat txikiagoa izan da (% 14,6 apirilean eta % 15 otsailean). Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (6 eskaintza gutxiago, % 14,6ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, batxilergo ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 29,4ko murrizketa, 5 eskaintza gutxiago).

2018ko apirilarekin alderatuz, eskaintzak mota guztiak murriztu dira, batxilergokoak izan ezik (4 eskaintza gehiago, % 50eko hazkundea). Gehien murriztu direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (17 eskaintza gutxiago, %33,3ko jaitsiera).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak merkataritza, manufaktura-industria, eraikuntza eta jarduera administratiboak dira, eskaintzen % 16,8ko, % 15,6ko, % 9,9ko eta % 9,6ko pisuarekin, hurrenez-hurren (182, 169, 107 eta 104 lan-eskaintza 1.084 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintza motak, balore absolutuetan, garraiokoak izan dira (12 eskaintza gehiago, % 42,9ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, higiezinen arloko eskaintzak izan dira (% 80ko igoera, 4 eskaintza gehiago). Eboluzio negatiboa izan dutenen artean, balore absolutuetan bilakaera okerrena izan dutenak manufakturako eskaintzak izan dira (33 eskaintza gutxiago, % 16,3ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, nekazaritzako eskaintzak izan dira (% 50eko murrizketa, 5 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eboluzio okerrena pairatu duten eskaintzak, balore absolutuetan, industria-manufakturakoak izan dira (41 eskaintza gutxiago, % 19,5eko murrizketa); aldiz, balore erlatiboetan, hezkuntza eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (%30,4ko murrizketa, 14 eskaintza gutxiago), eskaintza kopuru garrantzitsu bat duten jardueren artean. Bestalde, jarduera zientifikoen eta eraikuntzako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (14 eskaintza gehiago bakoitzean, % 21,5eko eta %15eko hazkundeak, hurrenez hurren); balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko jardueretako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (%150eko hazkundea, 3 eskaintza gehiago).